

## BERRIEMAILEAK

Deskribapena: Norvegiako imajinak ageri dira bertako jendearekin.

Kike (off ahotsa): Batuaren eta, euskalkien arteko harremana nahaspilatsua iruditzen bazaizue, norvegieraren kasua ez da atzean geratzen: Nordnorks, Trondersk, Innlandsmal, Vestnorks eta Ostnorks dialektoak edukitzeaz gain, hizkuntza batu batekin nahikoa ez eta, bi norvegiar batu ditu Bokmal, danieratik gertuago dagoena eta, Nynorsk, bertako dialektoetan oinarritutako batu garbiagoak, hori bai marka!

Deskribapena: Tronpetaren soinua entzuten da eta, ondoren pantaila hiru zatitan banatzen da, zati bakoitza korrespontsal edo berriemaile batekin, Aitor Abaroa (Lekeitio), Argitxu Camus (Ezpeize) eta Ane Pedruzo (Gasteiz).

Kike (off ahotsa): “Berriz? Zeintzuk ote dira orain, gureak ala besteak? Kontxo! Gureak! Eta zuek, noiz erabiltzen duzue batua eta noiz euskalkia?”

Argitxu: “Galdera oso ona da, nik uste dut euskara frantsesarekin bezala edo euskara espainolarekin bezala, xüberotarra nire kasuan, batuarekin diglosia egoera batean dela, ez? Nire kasuaz mintzatzeko talde batean, zenbaitek xüberotarrez ez baldin badote mintzaten askotan, lerratzen naiz batuerara eta azkenean pena da. Hor adibidez, “tribuaren berba”n gütuk? E? eta nola ari naiz ni, xüberotarrez ari naiz, orain bai baina aitzineko aldietan, ez. Konprenitzen duzu?”

Aitor: “Ba nire kasuan, ni kontrakua. Ni horretan nahiko talibana naizela esango nuke eta bardin iako nora juten naizen beti, lekittarra iten dot. Egixa da bebai, baukatezela lagunak, Iñigito adibidez, harek, Lekittotik urteten bada, danakin batueraz. Eta nik ba bronkia botatzen dotzat. Nik usteot, danok, euskaldun guztiok bakoitzak berena eginez gero, lasaitasunez, ba ulertuko ginela elkarren artian.”

Ane: “Ba nik esan behar dizuet nik ez daukadala arazorik ez dutela bata edo bestearen artean aukeratu behar, nik batueraz egiten dudalako, hori bai, ba, euskalkien nahaste-borraste batekin dotoretutako euskara batua. Nik esan dezaket neretzako euskalkiak direla nere batuaren gatza eta piperra edo holako zeoze.”

Deskribapena: Koldo Zuazo ageri da kafetegi bateko terrazan kafea hartzen eta, Kike hurbiltzen zaio.

Kike: “Aupa Koldo!”

Koldo: “Joe, oraindik hemen! Ez al nauk bakean utzi behar!2

Kike: “Bai! Aizu begira, Ane Pedruzo entzun dut eta zalantza sortu zait. Gaur egun Gasteizen hitz egiten dena, euskalkia da edo ez da?”

Koldo: “Euskalkia da.”

Kike: “Euskalkia da?”

Koldo: “Bai, bai, bai.”

Kike: “Eta ze euskalki?”

Koldo: “Erdialdekoa. Azken batean euskara batua erdialdeko euskaran dago oinarrituta eta hori da Gasteizen oraindik egiten dana. Ez dakit hemendik urte batzutara ba, transmititzen denean hori, beste belaunaldi batzuetara beharbada hartuko du bertako ikutua baina gaur egun berria da eta...”

Kike: “Eskerrik asko Koldo! Ez zaitu gehiago molestatuko.”

Koldo: “Seguru?”

Kike: “Bai, bai, beno agur!”